

EBAZPENA, 2022ko urriaren 3koa, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren zuzendariarena, Titulazioen Ebaluazio Batzordeen kide batzuk kargutik kentzea eta Titulazioen Ebaluazio Batzordeen kide berriak izendatzea xedatzen duena, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren ekainak 28ko 2012/13 Legeak xedatzen duena betez.

Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren ekainak 28ko 2012/13 Legean, 8.3.d) artikulua xedatzen duenari jarraiki, Zuzendariari dagokio ebaluazio-batzordeetako kideak izendatzea eta kargutik kentzea, Aholku Batzordeak proposatuta.

Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren ekainak 28ko 2012/13 Legearen 10. Artikuluari jarraiki, ebaluazio batzordeak, bestelako kideez gain, ebaluatuko diren esparruen ikasleekin osatuta egongo dira, Euskadiko unibertsitate-ikasleen partaidetzarako organo zehatzak izendatuta.

Horregatik, esleitu zaizkidan eskumenei jarraiki, eta aipatutako aurreikuspenak betetzeko,

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- Ondoren zehazten den Ebaluazio Batzordeko kide hau kargutik kentzea, eta egindako lanegatik eskerrak ematea:

Zientzietako Batzordea

Batzordekide ikaslea: Sara Bonet Gómez

Bigarrena.- Aholku Batzordeak proposatuta, hurrengo Ebaluazio Batzordeko kidea izendatzea:

Zientzietako Batzordea

Batzordekide ikaslea: Carme Pacín Salvador

Hirugarrena.- Ebazpen honek egun honetatik bertatik aurrera izango ditu ondorioak. Hala badagokio, ebazpena ezagutzera emate aldera Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren web orrian argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko urriaren 3an.

IÑAKI HERAS SAIZARBITORIA

El Director de Unibasq – Agencia de Calidad del Sistema Universitario Vasco

